


TABAKO-KONTSUMOAREN PREBALENTZIA OROKORRAK EUSKADIKO 14 ETA 18 URTE BITARTEKO IKASLEEN ARTEAN

Oinarrizko datuak


1 Grafikoa. Tabakoaren kontsumoaren prebalentzia orokorren bilakaera Bigarren Hezkuntzako 14-18 urteko ikasleen artean. Euskadi 2006-2023



Iturria: Espainiako Bigarren Hezkuntzako Ikasleen Drogen Erabilera Buruzko Inkesta (ESTUDES). Euskadirako datuak.

- 2023an tabakoaren erabilera murriztu egin da Euskadiko 14 urtetik 18 urtera bitarteko Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean. Bizitzan noizbait kontsumitu dutenen proportzioa 7 ehuneko murriztu da, eta azken 12 hilabeteetako eta azken 30 egunetako kontsumoa ere 5 ehuneko jaitsi da. Jaitsierarik handiena (2021ean jasotako datuarekin alderatuta, % 30,8koa) eguneroko kontsumoan gertatu da, 2021etik 2023ra bitartean % 9,4tik % 6,5era jaitsi baita.


2 Grafikoa. Azken 30 egunetako eta eguneroko kontsumoaren bilakaera Bigarren Hezkuntzako 14-18 urteko ikasleen artean. 2006-2023



Iturria: Espainiako Bigarren Hezkuntzako Ikasleen Drogen Erabilera Buruzko Inkesta (ESTUDES). Euskadirako datuak.

- Euskadiko 14-18 urteko ikasleen egungo (azken 30 egunetako) eta eguneroko tabako kontsumoaren prebalentziak Estatu osoko en azpitik jaitsi dira 2023an. Urte horretan, Euskadiko Bigarren Hezkuntzako ikasleen % 20,5ak adierazi zuen tabakoa kontsumitu zuela inkestaren aurreko 30 egunetan, eta % 6,5ak eguneroko kontsumitzailea zela. Kontsumo-prebalentzia horiek % 21 eta % 7,5 dira, hurrenez hurren, Espainian, batezbeste.


3 Grafikoa. 14-18 urteko Bigarren Hezkuntzako ikasleen tabako-kontsumoaren prebalentzia orokorrak, sexuaren arabera. Euskadi 2023



Iturria: Espainiako Bigarren Hezkuntzako Ikasleen Drogen Erabilerari Buruzko Inkesta (ESTUDES). Euskadirako datuak.

- Tabakoaren kontsumo esperimental (bizitzan noizbait) eta azkenaldiko kontsumoa (azken 12 hilabeteetan) zertxobait handiagoa da 14-18 urteko nesken artean. Egungo kontsumoari (azken 30 egunetakoari) eta eguneroko kontsumoari dagokionez, berriz, ez dago alderik generoaren arabera.

4 Grafikoa. Azken 30 egunetako eta eguneroko kontsumoaren bilakaera Bigarren Hezkuntzako 14-18 urteko ikasleen artean, sexuaren arabera. 2014-2023



Iturria: Espainiako Bigarren Hezkuntzako Ikasleen Drogen Erabilerari Buruzko Inkesta (ESTUDES). Euskadirako datuak.

1 Taula. Tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera Bigarren Hezkuntzako 14-18 urteko ikasleen artean, sexuaren arabera. Espainia eta Euskadi 2014-2023

	2014	2016	2018	2021	2023
Espainia	13,9	14,1	14,1	14,1	14,1
Euskadi	13,9	14,2	14,1	14,2	14,2
Mutilak	13,8	14,2	13,9	14,1	14,1
Neskak	14,1	14,2	14,3	14,2	14,3

Iturria: Espainiako Bigarren Hezkuntzako Ikasleen Drogen Erabilerari Buruzko Inkesta (ESTUDES). Euskadirako datuak.

- Bilakaeraren ikuspegitik, positiboa izaten ari dela ikusten da, oro har, bereziki, nesken artean, 2021era arte egungo kontsumoaren prebalentziak mutilek baino altuagoak baitziren haien artean.
- Euskadin, tabakoa kontsumitzen hasteko adina 14 urte pasatxokoa da bigarren hezkuntzako ikasleen artean. Ia ez dago alderik mutil eta nesken artean, ezta Euskadin eta Estatu osoaren artean ere adierazle honi dagokionez.